

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresak, elkarrekiko **lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa** egingo du. Aliantza mota hauetan parte hartzen duten enpresen negozio-ereduak ez dira lehiakide merkatu-segmentu edo baliabideei dagokienez, eta elkarrekin lanean aritzea bultzatuko izan daiteke onuragarri.

Gure enpresaren ideia da eskualdeko produktu konpaniekin elkartzea kalitatezko elikagaiak izateko eta bitarteko enpresak ez egoteko eta lehengaien prezioa ahalik eta merkeagoa eskuratzeko. Euskadiko nekazariekin aliantzak egitea da gure ideia, horniduren eta lehengaien kostuak ahalik eta txikienak izateko, kalitate onekoa den bitartean. Adibidez, Gasteizko merkatuan, Abastos kalean dagoenekoan lortu ahalko ditugu hainbat produktu; enpresa txikien jarduerak bultzatuko ditugularik. Beste bide bat km 0-ko produktuak lortzeko da hiriko edo erkidego osoko enpresa txikien produktuak erostea: fruta, ogia, barazkiak...



Bestaldetik, hainbat “influencer”-ekin kolaborazioen bat egitea pentsatu dugu. Gaur egun, pertsona “famatu” hauek eragin handia daukate jendearen iritzia eta jokabideetan, eta, horregatik, gure enpresa ezaguna egiteko haien laguntza ezinbestekoa dela uste dugu. Gainera, momentu honetan osasuntsu jatea modan jarri da, eta sare sozialetan asko hitz egiten da gai honi buruz.

Adibidez, jatetxera gonbidatu ahalko genituzke, haiek *Instagramen* gure janarien edo lokalaren argazkiak igotzeko, aldi berean haien partetik datozen pertsonak deskontu edo promozioen bat izateko aukera izan dezaten



Gainera, gaur egun *realfooding* izeneko mugimendua oso modan dago, jendeak hobeto jateko ahalegina egiten ari delako. Mugimendu horren mamia ultraprozesatuak diren produktuak ekiditzean datza. Ahalik eta janari erreal gehiago jan dezagun. Mugimendu honen sortzailea Carlos Rios da, eta, bere helburua, azken finean, telebistan eta orokorrean, prentsan, osasuntsuak ez diren produktuak iragartzen dituzten gezurrak azpimarratzea da. Jendeak kontzientzia hartzeko produktu hauen benetazko kalteetat.

Sare sozialen bidez, errezetak eta aholkuak ematen ditu, komunitate oso bat sortu duen arte.



Gure marketin ideietariko bat da; gure produktuak ezagunak egiteko, kirolaren bitartez egin nahi dugu. Horretarako Martin Fizen dendarekin edo beste kirolariekin kolaborazio egin ditzakegu, bere jarraitzaileak gure jatetxean jan egin dezaten. Maratoietan ere, patrozinatzaileak izan nahi dugu eta maratonen anoa-postuetan gure janaria eta edariak kirolariei eman



Festibaletan, gure gunea sortzea nahiko genukeenez, ekitaldi horietan egoteko hainbat enprekin batera lan egin nahiko genuke. horretarako, "food truck" moduko jarduera eginez. Leku batetik bestera joateko aukera ematen diguna. Adibidez, nazio mailan dauden festibalekin kolaboratu ahalko genuke: Donostia festibala, Bartzelonako Reggaeton Festibala, Azkena Rock Festibala, Biocap Festibala, Bilbao BBK live etab.

